


ON JESUS KEREJETARI (Omenaldia)

Xabier



Gure artean 50 urte igaro ondoren apaiz eta organo jole bezala, joan zan 2002ko azaroaren 24an omenaldi bat egin zitzaion, esker onez, bere adiskide eta eliztarrek parte harturik, eliza eta herriaren alde egin dituen lanak eskertu nahirik.

Ekintza horiek gai harturik, nere “Oarso” urtekarirako egiten dedan lantxoia bete ahal izango det on Jesusen ohoretan, bere bizi kondairaren zatitxo batzuk azalduz.

Has gaitezen bere bizitzako lehen egunetatik; Gipuzkoako Ataun herri atseginean jaio zen 1928ko irailaren 17an eta gero, Jainkoaren deiari entzunez, apaizgintzarako lehenengo hiru urteak Bergarako apaizgintzategi kontziliarrean egin zituen; gainerakoak Gasteizko elizbarrutiko apaiztegian, bertan apaiz eginik.

Bartzelona hirian, Montjuïc estadioan, 620 apaiz berriren ordenazioa egin zen XXXV. Batzarrean, 1952ko maiatzaren

31an. Elizkizun ikusgarri honetan egin zen apaiz On Jesus. Bere lehenengo Meza Ataunen eman zuen. Ekainaren 15ean Errenterian hutsik zegoen lekua hartu zuen eta, orduz geroztik, apaiz eta organo jole daukagu gure artean hain aipagarri eta gogoratua dugun On Juan Bautista Olaizolaren lekua betez.

Gure artean bizi izan duen egoera bi zatitan banatu genezake: bat, apaiz bezela, eta bestea, musikariarena. Apaiz egiteko pausuak ikusi ditugu, eta orain musikariarenak azalduko ditugu. On Jesusek lehenengo musika ikasketak 6 urterekin hasi zituen bere sendian ziren musikakarien artean, bere osaba Luis Oharritxenarekin, piano eta organo jole eta Billabonako Bandaren zuzendaria ere bai baitzen.

Berehala, Gasteizko apaizgintzategian egondako denboran jarraitu zuen bere musika ikaskizuna Tomas Etxabarri Gasteizko musika ikastolako zuzendariarekin eta, azkenik, Julio Valdes musika egile ospetsuarekin ereskidetasuna egin ahal izan zuelarik.

Bere gaztetasunean, eta dohain hauekin, ekiten dio tinko lanari gure herrian hain

behartua baitzegoen musika zaletasuna berpiztu beharrean.

Era honetan, gogor hasten da bere lan bikoitza, bai apaiz bezela eta organo jole bezela ere, bere gaztetasunak dakarren dohainarekin asmo sendoak harturik.

Eta gure artean urtea bete ez zuenean hor prestatu zuen “Coral Santa Maria Magdalena” izenarekin 135 abeslarik osatutako abesbatza. Bere lanen aurkezpena 1953ko Madalen bezperako arratsean herritarren aurrean azalduarik, saio berezi batekin. Bere lehenengo kontzertua izanik, bertan abestu ziren abestien izenak azalduko dizkizuet:

- Agur Jaunak(J.M. Olaizola)
- Giboso y Vil(Beon)
- Pero Grullo(Durango)
- Itzaia(Mokoróa)
- Bajo el Olmo(Morera)
- Nere andrea(Ezezaguna)
- En el monte Gorbea(J. Aranburu)

Abesti hauek On Jesusen zuzendaritzapean abestu ziren lau eta bost ahots nahastuetara izanik. Errenteriako Kultura Musikaleko



Foto Jesús Hospitalés

Bandaz lagundurik, berriz, R. Wagnerren Tannhauser-eko Garaipen Martxa Handia, azken obra au On Jose Maria Iraolak zuzendu zuelarik.

Eta honela jarraitu zuen On Jesusek Orfeoi eta elizako eginbeharrak elkarrekin harturik 1961 arte. Urte hauen barruan ekitaldi askotan parte hartu genuen “Orfeón Renteriano” izenarekin Magdalen bezperako ekitaldietan, elizan Eguberri, Aste Santuko abestaldi berezietan, baita ere Donostiako Euskal Astean, Pasaian, Oiartzunen, Itziarren, Arantzazun. Baionako Beirio auzotegian Eliza berri baten irikitzea zela eta.

Azken urteetan, gorabehera batzuk izan ondoren, 1961. urteko Magdalen-jaietako bezperan egindako saioarekin, Errenteriako abesbatzen musikarekin beste etapa berri bat amaitu zen.

Eta azken ekinaldiaren oroigarri bezala, bertako egitaraua hau izandu zen: Lehenengo Zatian, Orfeoia bakarka On Jesusen zuzendaritzapean, abesti hauekin:

Agur Jaunak	6	ahots desberdinetan	(J. Olaizola)
Pero Grullo	5	” ”	(Durango)
Errotazaia	5	” ”	(Mokoroa)
Marcha de las Ruinas de Atenas (6 a.d.)			(Bethoven).

Ondoren, Musika Bandarekin, Gabino Zarrantz zuzendari zuelarik, Verdiren Nabukoren Gatibuen Korua eta Haendelen Aleluia. Amaieran, J. Guridiren EUSKO IRUDIAK, Donostiako Goizaldi dantza taldea dantzari izanik. Orfeoiaren azkeneko ekinaldi hau Foru Enparantzan izandu zen. Orfeoia herriari egin zion azken oparia.

Era honetan On Jesusek gure artean bizimodu berri bat hartu zuen, zergaitik, une horretan orfeoia ematen zizkion beharrak utzi ahal izanik, elizbarrutirako lanak egiteko denbora izango zuelakoan. Hortik aurrera, elizako koroaren eta eliztarren arduradun geratu zen, eta tinko eta apal jarraituko du ekintza hauetan azken berrogeita hamar urte hauetan gertatu bezela.

Eta eliztarrek eta herriak bere eginkizunak eta bere lanak eskertu nahiean omenaldia eskaini zioten azaroaren 24an bera hainbeste urtetan apaiz eta organo jole izandu den elizan. Ospakizun berezia egiteko, bertako xehetasun batzuk azalduko dizkizuet ondoren.

Goizetik, bera bizi den etxetik eta meza aurretik, ibilaldi batean Ereintzako txistularien soinu alaien artean, eta bere senidearekin, elizara hurbildu zen. Eliza argiz eta jendez gainezka prest aurkitzen zen egun oroigarrian parte hartzeko. Aldarean On Jesus meza-emaile bezala, On Jose Maria Bikario jauna, eta on Cesar Artzapez salesianoa. Laguntzaileak beste hamabost apaiz berarekin batean. Koroa elizbarrutikoa eta Andra Maria Abesbatza, Errenteria Kulturalako Musika Banda ere jai honetara bildu zen. Organo jole Imanol Elizasu Lasa, Oiñarri eta Orereta abesbatzetako zuzendaria. Meza guztia herrikoia izan zen Iñaki Goñiren zuzendaritzapean. Zati bereziak ere izandu ziren, eskeintza denboran Musika Bandak egin zuen bere saioa Udaltzen “Bortian ahuzki” Xuberoako abesti hunkigarria joaz. Elizako koroak, Andra Mariko gizonen laguntzarekin, Rimondiren “O sacrum convivium” abestiarekin Jaunartzeko garai bat osatu zuan, Aita Donostiren “O Jesu dulcissime” Andra Marikoak beste saioa bete ahal izanik.

Azkenik Haendelen “Aleluia” hain ospatua dena, Musika Bandak, Andra Marik eta elizako koroak bat eginik handitasun osoz eliza bete zuten Aitor Mitxelenaren zuzendaritzapean. Mezatako hitzaldia egunari zegokiona egin zuen On Jesusek berak dakien bezala. Eta opari eskaintza aurretik bere apaiz lagun, herritar adiskide bezala

hitzaldia, bai apaiz eta bai lagun bezala, elkarrekin urte askotan arituak baitziren.

Eta hona hemen jaso zituen opariak: Errenteriako Udalak, Helduen ibilaldiak, Errenteriako Musika Elkartek, Andra Mari Jasokundeko elizako garbittzaile-taldeak, Urdaburu Mendi Elkartek, Andra Mari Abesbatzak eta Elizako Koro eta Orfeon Renterianokoak izandu ziren abeslariak Magdalen-jaietako kontzertu bateko argazkia bertan oraindik bizi garenon sinadurak ezarrita.

On Jesusek, erabat hunkiturik, eskerak eman zizkigun elizako jai horretan parte izan ginen guztioi, meza beti oroitu-ko dugunari amaiera emanik.

Ondoren, eta bazkaria Lintzirin jate-txean egin aurretik, elizako atarian Ereintzako dantzariak beren agurra eskaini zioten.

Ondoren, askari herrikoia izandu zen, 120 lagun bertan elkarturik. Bazkari ona eta umore eta abesti saio ugari izandu ziren festa ordutan joanagatik eta amaitu zen On Jesusi egindako omenaldi egunean.

Baina egun honek beste gertaera aipagarria izan zuen, herriko alkate jaun on Miguel Buenek udalaren izenean, elizako organo zaharra konponketa beharrean aurkitzen delarik, bere laguntza izango duela Udalaren aldetik. Ea bada bide one-tik igarotzen dan eskaintza hau.

Nik uste dut nire eginbeharra bete dudala eta hutsune batzuk aurkitzen badi-tuzue nire lan hnetan barkatuko didazuela iruditzen zait.

Eta, azkenik, nik egun honetan egin-dako bertsoak eta Iñaki Goñik abestuak argitaratzen dizkizuet:

Eleiz onetan ospatzen degu
gaur egun bat berezia,
Bertakoa dan apaiz bateri
egiñik omenaldia.
Merezimenduz irabazia
au degu egi garbia
Zuretzako gure zorionak
On Jesus agurgarria.

Berrogeita-amar urte dirade
gure artean zerala
Apaiz bezela denbora ortan
baita organu jolea.
Zure alboan urte auetan
askotan elkartu gera
Kristau bidean zuri jarraituz
Baita-abeteslari bezela.

Naiz ataundarra izan jaiotzez
maite dezu Errenteri
Beraren alde egin dituzu
goi maillako lan ugari.
Gaur erri onek omentzen zaitu
eskertuz zure lan ori
Ta eskaturik bere laguntza
zuretzako Jainkoari.